

**GERNIKA-LUMOKO IRA-KASKUNTZA
ZENTROEK 2024-2025 IKASTURTEAN
GAUZATUTAKO ESKOLA
ORDUETATIK KANPOKO
JARDUERETARAKO ETA
EUSKARAREN NORMALKUNTZA
PLANETARAKO DIRULAGUNTZA
DEIALDIAREN ARAUDIA**

**I. ATALA: OINARRIZKO
ARAUAK**

1. Artikulua.- Deialdi hau honako arau hauetan oinarritzen da: **Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorrean**, lege hori garatzeko erregelamenduan eta 2012ko abenduaren 19ko B.A.O.-n argitaratutako **Dirulaguntzen Udal Ordenantza Orokorrean** xedatutakoaren arabera, bai eta aplikagarriak diren gainerako arauen arabera ere.

Deialdi-araudi honetan finkatzen ez denerako, aipatu Ordenantzara joko da (onuradunen betebeharrak, emateko prozeduraren berezitasun administratiboak, dirulaguntzak itzultzea, arau-haustea eta zigorrak).

2. Artikulua.- Dirulaguntza deialdi honen **helburua** da Gernika-Lumo udalerriko irakaskuntza zentroetan euskararen normalizazioa eta sustapena laguntzea, Normalkuntza Planak eta eskolaz-kanpoko egitasmoak bitarteko.

3. artikulua.- Dirulaguntzen legediari jarraiki, honako deialdi hau BDNS-ean (Dirulaguntzen datu-base nazionalean) argitaratuko da, eta horren laburpen bat BAO-n iragarriko da. Era berean, Udaletxeko iragarki taulan argitaratuko

**REGLAMENTO DE LA
CONVOCATORIA DE SUBVENCIONES
PARA ACTIVIDADES
EXTRAESCOLARES Y PLANES DE
NORMALIZACION DEL EUSKERA
DESARROLLADOS POR LOS CENTROS
DOCENTES DE GERNIKA-LUMO EN EL
CURSO 2024-2025**

**I. CAPITULO: NORMAS
BASICAS**

Artículo 1.- La presente convocatoria se rige por lo dispuesto en la **Ley 38/2003 General de Subvenciones**, en su reglamento de desarrollo y en la **Ordenanza General Municipal de Subvenciones** publicada en el BOB de 19 de diciembre de 2012, así como por el resto de normativa de aplicación.

En lo no previsto en el presente Reglamento, se estará a lo dispuesto en la citada Ordenanza (obligaciones de los beneficiarios, peculiaridades administrativas del procedimiento de concesión, reintegro de subvenciones, infracciones y sanciones).

Artículo 2.- La **finalidad** de esta convocatoria de subvenciones es ofrecer ayudas para la normalización y la promoción del euskera en el ámbito de los centros de enseñanza del municipio, a través de los Planes de Normalización y los proyectos de actividades extraescolares.

Artículo 3.- De conformidad con la legislación relativa a subvenciones, la presente convocatoria se publicará en el BDNS (Base de Datos Nacional de Subvenciones) y un resumen de la misma se anunciará en el BOB. Asimismo,

da eta udalerriko irakaskuntza zentroei helaraziko zaie.

4. artikulua.- Dirulaguntza deialdi honetako **onuradunak** Gernika-Lumoko udalerriko irakaskuntza zentroak izango dira eta nor-gehiagoka-araubideari eutsiz izapidetuko dira. Deialdirako erabiliko den kopuru osoa 45.300 eurokoa da, aurrekontuko 5-3200-43000 partida ekonomikoren kargura.

5.- artikulua.- Eskabide orria eta gainerako agiriak **30 egun naturaletako epean aurkeztu** beharko dira, deialdiaren laburpena B.A.O.-n argitaratu eta biharamunetik zenbatuta.

6. artikulua.- Dirulaguntza emateko **instrukzioa** Euskara Zerbitzuaren ardura izango da; honek bidezko txostena egin ondoren, Hezkuntza zinegotziaren proposamena igorriko zaio Tokiko Gobernu Batzarrari, ebazpena har dezan.

7. artikulua.- Ebazpena hartu eta handik eta zazpi egun barru, Tokiko Gobernu Batzarraren akta iragarriko da udaletxeko iragarki taulan.

8. artikulua.- Ebazpena hartu eta 10 eguneko epean, gehien jota, **eskatzaileari jakinarazpen pertsonala** bidaliko zaio legez finkaturiko moduan, berak eskaera orrian aipatutako helbidera. Jakinarazpen horretan, ebazpenaren aurkako errekurtsoen berri emango zaio.

9. artikulua.- **Eskatzaileak** eskabidearekin batera egiaztatu egin beharko du Dirulaguntzen 38/2003 Lege Orokorrak eta honen araudiak zehazten dituzten baldintzak betetzen dituela. Horretarako, **hurrengoak aurkeztu beharko ditu:**

se publicará en el tablón de anuncios del Ayuntamiento y se remitirá a los centros docentes del municipio.

Artículo 4.- Los **beneficiarios** de esta convocatoria de subvenciones serán los centros de enseñanza del municipio y las ayudas se tramitarán en régimen de concurrencia competitiva. La cantidad destinada a esta convocatoria será de 45.300 euros, con cargo a la partida económica 5-3200-43000 del presupuesto municipal.

Artículo 5.- Las solicitudes y demás documentación deberán presentarse en **plazo de 30 días naturales**, contados a partir del día siguiente a la publicación del extracto de la convocatoria en el B.O.B.

Artículo 6.- La **instrucción** de esta convocatoria de subvenciones será responsabilidad del Servicio de Euskera; tras el correspondiente informe de dicho Servicio, se tramitará la propuesta oportuna del concejal de Educación a la Junta de Gobierno Local, la cual resolverá.

Artículo 7.- Adoptada la resolución y transcurridos los posteriores siete días, se publicará en el tablón de anuncios el acta correspondiente de la junta de Gobierno Local.

Artículo 8.- Tras adoptar la resolución, y en plazo de 10 días como máximo, se enviará **notificación personal** y de forma legal a la solicitante, a la dirección indicada en la solicitud. En dicha notificación se le informará de los recursos existentes contra la resolución.

Artículo 9.- Junto con la solicitud **el solicitante** deberá acreditar que cumple las condiciones establecidas en la Ley General de Subvenciones 38/2003 y su reglamento. A tal efecto **deberá presentar:**

a).- Dirulaguntzak lortzea galarazten duten egoeretan ez egotearen zinpeko aitorpena; hain zuzen ere, 38/2003 Legeko 13.artikuluko egoeretan ez egotearena (**III. Eranskina, zinpeko aitorpena**).

b).- **Gizarte segurantzarekiko** betebeharretan egunean egotearen ziurtagiria (agiri hori Udalak berak lortzeko baimena eman ahalko dio eskatzaileak).

c).- **Zerga betebeharretan** egunean egotearen ziurtagiria (agiri hori Udalak berak lortzeko baimena eman ahalko dio eskatzaileak).

d).- Xede berdina finantzatzeko jaso edota eskatutako **beste dirulaguntzen aitorpena**, erakundearen datuak eta kopurua zehaztuz.

Aurreko b) eta c) letretan aipatzen diren ziurtagiriak Gernika-Lumoko Udalak eskuratuko ditu datuen bitartekaritzarako dauden plataformen bitartez, eta, beraz, ez dira aurkeztu beharko, ziurtagiri horiek lortzea eragotzen duten arazo teknikoak daudenean edo eskatzailea aurka dagoenean izan ezik (hori eskabide-inprimakian adierazi beharko da). Arazo teknikoak izanez gero, Udalak behar bezala eskatuko dio eskatzaileari aurkezteko. Aurka egonez gero, interesdunak eskabidearekin batera aurkeztu beharko ditu ziurtagiriak.

10. artikulua.- Dirulaguntzaren ordainketa kopuru bakar batean egingo da, ebazpenaren jakinarazpena egin eta hilabeteko epean.

11. artikulua.- Onuradunek justifikatu egin beharko dute jasotako dirulaguntzaren erabilera 2026ko urtarrilaren 31rako eta horretarako justifikazio agiria (IV. Eranskina) eta **justifikazio kontua** aurkeztu beharko dituzte. Justifikazio kontua 887/2006 Errege Dekretuko

a).- Declaración jurada de no estar incurso en ninguna de las causas de incompatibilidad previstas en el artículo 13 de la Ley 38/2003 (**Anexo III, declaración jurada**).

b).- Certificado de estar al corriente en el cumplimiento de las obligaciones con la **Seguridad Social** (el solicitante podrá autorizar al Ayuntamiento para que lo recabe).

c).- Certificado de estar al corriente de las **obligaciones tributarias** (el solicitante podrá autorizar al Ayuntamiento para que lo recabe).

d).- **Declaración de otras subvenciones** recibidas y/o solicitadas para la misma finalidad, detallando datos de la entidad y cuantía de las mismas.

Los certificados a que se refieren las letras b) y c) anteriores serán recabados por el Ayuntamiento de Gernika-Lumo a través de las plataformas de intermediación de datos existentes, por lo que NO deberán ser aportados, salvo que existan problemas técnicos que imposibiliten su obtención, o exista oposición por parte del solicitante (lo cual deberá indicarse en el formulario de solicitud). En caso de problemas técnicos, el solicitante será debidamente requerido por el Ayuntamiento para su presentación. En caso de oposición, el interesado deberá acompañar los certificados a su solicitud.

Artículo 10.- El abono de la subvención se realizará en un único pago, en plazo de un mes de notificada la resolución.

Artículo 11.- Las entidades beneficiarias deberán justificar el uso de la subvención concedida para el 31 de enero de 2026, presentando el documento de justificación (anexo IV) y la **cuenta justificativa**. La cuenta justificativa deberá presentarse en la forma

72. artikuluan xedatu moduan aurkeztu beharko da, bertan agertzen diren memoriak, agiriak eta frogagiriak aurkeztuz.

Udalak emandako dirulaguntzez gain jarduerak norbere fondoekin edo beste dirulaguntza edo fondoren batzuekin finantzatzeko badira, zenbatekoa, jatorria eta Udalak diruz lagundutako jardueren fondo horiek nola aplikatu zaizkien aitortu beharko da zuriak.

Gernika-Lumoko Udalak emandako dirulaguntza beste dirulaguntzekin bateragarri izango da, betiere gainfinantzaketarik ez badago.

Dirulaguntza zuritu beharra gauzatu ezean, 38/2003 Legeak arautzen duen itzultze prozedura jarriko litzateke martxan.

II. ATALA.- ARAU BEREZIAK

12. artikulua.- Gernika-Lumoko Udalak onartuta daukan Euskara Sustatzeko Ekintza Planean (ESEP) oinarrituta, hurrengo ataletako ekintza hauekin loturiko egitasmoetarako esleituko dira araudi honetako dirulaguntzak, ekintza bakoitzaren lehentasun maila kontuan:

ERABATEKO LEHENTASUNA

A).- Familia transmisioan eragiteko egitasmoak:

- Guraso euskaldunak euskararen transmisioan inplikatzeko estrategiak landu.
- Guraso erdaldunengan eragin, euskararen aldeko jarrerak lantzeko.
- Etxeko lanak euskaraz egiten laguntzeko dinamikak landu gurasoekin.
- Gurasoen arteko harreman guneetan euskararen aldeko hautua egiteko giroa landu.

prevista en el artículo 72 del Real Decreto 887/2006, mediante la presentación de las memorias, documentos y justificantes señalados.

En el caso de que además de las subvenciones concedidas por el Ayuntamiento las actividades se financien con fondos propios u otras subvenciones o fondos, se deberá declarar en la justificación el importe, procedencia y aplicación de dichos fondos a las actividades subvencionadas por el Ayuntamiento.

La subvención concedida por el Ayuntamiento de Gernika-Lumo será compatible con otras subvenciones siempre que no exista sobrefinanciación.

El incumplimiento de las obligaciones de justificación de la subvención dará lugar al inicio del procedimiento de reintegro regulado en la Ley 38/2003.

CAPITULO II.- NORMAS ESPECÍFICAS

Artículo 12.- Tomando como base el Plan de Acción para la Promoción del Euskera aprobado por el Ayuntamiento de Gernika-Lumo (PAPE), las ayudas de esta convocatoria se adjudicarán con destino a proyecto cuyas acciones se recogen en los siguientes apartados, teniendo en cuenta su nivel de prioridad:

PRIORIDAD MUY ALTA

A).- Proyectos para influir en la transmisión familiar del euskera:

- Trabajar estrategias para implicar en la transmisión del euskera a padres/madres euskaldunes.
- Motivar a padres/madres no euskaldunes para que actúen en pro del euskera.
- Trabajar dinámicas con padres/madres para ayudar en las tareas escolares.

ERABATEKO LEHENTASUNA

B).- Irakurzaletasuna bultzatu eta ahozko erabilera aberasteko ekimenak:

- Idazleak ikastetxera programa (hitzaldiak).
- “Gu ere bertsoan” programa
- Eskolako aldizkaria argitaratzea.
- Liburutegia hornitzea.
- Beste batzuk.....

ERABATEKO LEHENTASUNA

C).- Ikastetxeetan euskararen normalkuntza planak garatzeko ekintza orokorrak:

- Atsedendaldietan (eskola barruan) aisiaren bitartez euskararen erabilpena areagotzeko egitasmoak.
- Kirola euskaraz (kirol monitoreak alfabetatzeko/euskalduntzeko egitasmoak, kirol materiala euskaraz prestatu edota jasotzeko programak,...).
- DBH/Batzilergoko gazteen artean euskararen erabilera areagotzeko programak (Eusliderrak,...)
- Teknologia berriak eta euskararen erabilpena uztartzeko egitasmoak.
- Beste batzuk....euskararen erabilera areagotzeko ekintza zehatzak...

ERABATEKO LEHENTASUNA

D).- Etorkinen seme-alabei eta euren senitartekoei zuzendutako programa bereziak.

- Ikasle etorkinei eskainitako errefortzurako ikastaroak.
- Etorkinen familietara bideratutako baliabideak, euskararen ezagutza eta erabilera areagotzeko.

LEHENTASUNA ALTUA

E).- Euskara zine aretoetara programan parte hartzea (Tinko Elkarte eta Irudi Biziak erakundearen bitartez, edo zentro bakoitzak

- Trabajar en espacios donde se relacionen los padres/madres de cara a que opten por el euskera.

PRIORIDAD MUY ALTA

B).- Promover la afición a la lectura y actividades que enriquezcan el habla:

- Programa “idazleak ikastetxera” (charlas).
- Programa “Gu ere bertsoan”
- Publicación de la revista del centro
- Suministro de libros para la biblioteca
- Otros....

PRIORIDAD MUY ALTA

C).- Actividades generales para desarrollar planes de normalización del euskera en los centros:

- En el recreo (dentro del centro), proyectos para promover el euskera en el tiempo libre.
- Deporte en euskera (proyectos de alfabetización/euskaldunización de monitores, programas para preparar y/o conseguir material deportivo en euskera,...)
- Programas para promover el uso del euskera en el alumnado de ESO/Bachiller (Eusliderrak,...).
- Proyectos que unan el euskera al uso de las nuevas tecnologías.
- Otras..., actividades concretas para promover el uso del euskera...

PRIORIDAD MUY ALTA

D).- Programas especiales dirigidos a hijos/hijas de inmigrantes y sus familiares.

- Cursos de refuerzo destinados a alumnado inmigrante.
- Recursos ofrecidos a las familias de inmigrantes, con la finalidad de promover el conocimiento y uso del euskera.

PRIORIDAD ALTA

E).- Tomar parte en el programa “Euskara zine aretoetara” (mediante las entidades Tinko Elkarte e Irudi Biziak, o con los medios que

bere baliabideekin molda dezakeena, Udal Eskola Kontseiluaren batzarrean ebatzia oinarri).

LEHENTASUNA ALTUA

F).- Eskola barruko eta kanpoko komunikazioan euskararen erabilera areagotzearen hizkuntza irizpideak lantzeko ekintzak:

- Inprimakietan, bilera-aktetan, zirkularretan,... euskarazkoaren diskriminazio positiboa, hiztegitxoak eranstea.
- Gurasoen eta zentroaren arteko komunikazioan ahozko erabilera areagotzeko jarrerak lantzea (batzarretan, jaialdietako aurkezpenetan, irteeretan, ...).
- Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologia erabiliz euskararen erabilera areagotzeko ekintzak (euskararen lehentasuna web gunean, sare sozialetan, erabilera irizpideak eta protokoloak finkatuz).

13. artikulua.- Aurkeztu beharreko agiriak eta datuak:

- 1.- Eskaera agiria (**I. eranskina**), Zentroko ordezkariaren datu pertsonalekin.
- 2.- Normalkuntza Plana onartu deneko aitorpena eta 2024-2025 ikasturteko Ekintza Plana.
- 3.- Egitasmo bakoitzeko fitxa (**II. eranskina**), hurrengo datuak zehaztuz:
 - 12. artikuluko sei ataletatik zeinetan kokatzen den.
 - Burutuko den egitasmo bakoitzaren eraginpean izango direnak eta kopurua (irakasleak, ikasleak, gainerako langileak, gurasoak).
 - Erabiliko diren giza-baliabideak.
 - Egitasmoaren aurrekontua (gastuak eta diru-sarrerak).
 - Egitasmo edo ekintzaren kronograma.
- 4.- Eskatzailearen zinpeko aitorpena (**III. eranskina**).

cada centro pueda disponer, en base a lo acordado en el Consejo Escolar Municipal).

PRIORIDAD ALTA

F).- Actividades dirigidas a establecer criterios lingüísticos para promover el uso del euskera en la comunicación del centro de cara al ámbito interno como externo:

- En impresos, actas de reunión, circulares,... discriminación positiva del euskera, adjuntar diccionarios.
- Trabajar aspectos que promuevan el uso oral del euskera en la comunicación de padres/madres con el centro.
- Actividades de promoción del uso del euskera mediante las Tecnologías de la Información y Comunicación (prioridad del euskera en la página web, en las redes sociales,... estableciendo criterios y protocolos).

Artículo 13.- Documentos y datos que se deberán aportar:

- 1.- Documento de solicitud (**Anexo I**), con los datos personales del/la representante del centro.
- 2.- Declaración de haberse aprobado el Plan de Euskera y el Plan de Gestión del curso 2024-2025.
- 3.- Ficha correspondiente a cada proyecto (**Anexo 2**), concretando los siguientes datos:
 - Apartado en el que se incluye de los seis indicados en el artículo 12.
 - Grupo sociales influenciados por la actividad a desarrollar y número aproximado (profesorado, alumnado, trabajadores, padres/madres).
 - Recursos que se utilizarán.
 - Presupuesto del proyecto (gastos e ingresos).
 - Cronograma del proyecto o actividad.
- 4.- Declaración jurada de la solicitante (**Anexo III**).

5.- Eskaera eta berari lotutako agiriak modu telematikoa aurkeztu beharko dira Gernika-Lumoko Udaleko web guneko atal honetatik: <http://www.gernika-lumo.eus/eu-ES/Izapideak/Orriak/default.aspx>, tramiteetan “Eskolaz kanpoko ekintzetarako dirulaguntzak” espedientea hautatuz.

14. artikulua.- Hala denean, eskabideak berregiteko aukera izango da, azaroaren 17ko 38/2003 Diru-laguntzen Lege Orokorraren 27. artikulua araber. Eskabideak behar bezala beteta ez badaude, edo horiek ez badute araudi honetan eskatutako agirietako bat, eskaera egingo zaio eskatzaileari hamar (10) lanegunetako epean hutsunea zuzentzeko edo beharrezko dokumentuak aurkezteko. Horrela egin ezean, bi ondorio izan daitezke:

- Eskatzaileak deialdiari uko egiten diola ulertzea, falta direnak agiri orokorrak balira (1., 2. edo 3. eranskinak).
- Eskatzaileak eskaera egitean planteatutako egitasmoei buruzko fitxak ondo beteta ez badaude (2. eranskina), akatsak dituzten fitxetako egitasmoak deialditik kanpo geratuko dira.

15. artikulua.- Dirulaguntza deialdirako 2025eko udalaren aurrekontuko 5-3200-43000 partida ekonomikoan 45.300 daudela kontuan hartuta, hurrengo irizpide hauek finkatu dira esleipenerako:

- a).- “Kopurua 1” (diru partida osoaren % 35a, hau da, 15.850 €) eskaera aurkeztu duten zentro bakoitzaren ikasle kopuruaren arabera banatzekoa.
- b).- “Kopurua 2” (diru partida osoaren %65a, hau da, 29.450 €), egitasmoei buruz Euskara Zerbitzuak egindako balorazio txostenaren arabera banatzekoa (18. Artikuluari jarraiki).

5.- La solicitud y demás documentos a adjuntar se presentarán telemáticamente en la siguiente ubicación de la página web del Ayuntamiento de Gernika-Lumo: <http://www.gernika-lumo.eus/eu-ES/Izapideak/Orriak/default.aspx>, seleccionando el expediente “Eskolaz kanpoko ekintzetarako diru laguntzak”.

Artículo 14.- En su caso, las solicitudes podrán ser reformuladas, de conformidad con el artículo 27 de la Ley 38/2003 General de Subvenciones de 17 de noviembre. En el caso de que las solicitudes no estén debidamente cumplimentadas o faltase algún documento requerido en este reglamento, se requerirá a la entidad solicitante para que en plazo de diez (10) días laborables presente la documentación necesaria. La no aportación podrá tener dos consecuencias:

- Entender que la entidad solicitante renuncia a la convocatoria, si faltaran documentos de carácter general (anexos 1, 2 o 3).
- En caso que las fichas de los proyectos planteados por la solicitante no estuvieran debidamente cumplimentadas (anexo 2), los proyectos de las fichas defectuosas quedarán fuera de la convocatoria.

Artículo 15.- En el presupuesto de 2025 se destinarán 45.300 euros de la partida económica 5-3200-43000, para su adjudicación se utilizarán los siguientes criterios:

- a).- “Kopurua 1” (el 35% de la partida total, es decir, 15.850 €) se repartirá en base a la proporción del alumnado de cada centro solicitante.
- b).- “Kopurua 2” (el 65% de la partida total, es decir, 29.450 €)) se repartirá en base al informe de valoración de los proyectos presentados realizado por el Servicio de Euskera (según el artículo 18).

Beraz, Dirulaguntzak esleitzeko erabiliko den sistema, arestiko puntuetan aipatutako guztia kontuan, bi kontzeptuen batuketan oinarrituko da (“a” kopurua 1 + “b” kopurua 2):

Por tanto, el sistema que se aplicará para la adjudicación de las subvenciones, consistirá en la suma de los dos conceptos señalados (“a” kopurua 1 + “b” kopurua 2”):

ESKATZAILEAK (Solicitantes)	a) IKASLE KOP. ARABERA (“kopurua 1”) (Acorde con proporción de alumnado)			b) BALORAZIOAREN ARABERA (“kopurua 2”) (Resto en base a valoración)		DIRU- LAG. GUZTIRA (“a”+”b”) Total de subvención
	Ikasle kop. 2024-2025	%	Diru-lag. “Kopurua 1”-era egokitua	Aurrekontua puntuen arabera	Diru-lag. “kopurua 2”-ra egokitua	
GUZTIRA			15.850		29.450	45.300

16. artikulua.- Hamabosgarren artikuluko “a” ataleko dirulaguntzaren banaketarako zentroetako ikasle kopuruak aintzat hartzen direnez, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak 2024-2025 ikasturterako emandako informazioa hartuko da kontuan.

Artículo 16.- Dado que el reparto de la ayuda establecida en el apartado “a” del artículo 15 se realizará atendiendo al alumnado de los centros solicitantes, se tendrá en cuenta la información proporcionada por el Departamento de Educación del Gobierno Vasco para el curso 2024-2025.

17. artikulua.- Hamabosgarren artikuluko “b” ataleko dirulaguntzak ebazteko txostena eta bidezko proposamena egiteko, kontuan hartuko dira jarraiko baremazio-irizpideak, ESEP-ek (Euskara Sustatzeko Ekintza Plana) markatutako jarduera mota eta lehentasunak kontuan hartuta:

Artículo 17.- Para resolver la adjudicación de la ayuda establecida en el apartado “b” del artículo 15, se tendrá en cuenta el baremo y criterios indicados a continuación, basados en el tipo de actividad y prioridad establecidos en el PAPE (Plan de Acción par la Promoción del Euskera):

- Erabateko lehentasuna duen ekintza eta zentroan inplikaturiko giza-talde guztiei zuzendua: %100.
- Erabateko lehentasuna duen ekintza eta zentroan inplikaturiko giza-talde berezi bati zuzendua: %80.
- Lehentasun altua duen ekintza eta zentroan inplikaturiko giza-talde guztiei zuzendu: %60.

- Actividad con prioridad muy alta y dirigida a todos los grupos sociales implicados en el centro: 100%
- Actividad con prioridad muy alta y dirigida a uno de los grupos sociales implicados en el centro: 80%
- Actividad con prioridad alta y dirigida a todos los grupos sociales implicados en el centro: 60%

- Lehenetsun altua duen ekintza eta zentroan inplikaturiko giza-talde berezi bati zuzendua: %40.

Jarduera edo egitasmo bakoitzaren dirulaguntza zehazteko, bere aurrekontuari dagokion portzentajea/baremoa aplikatuko zaio.

18. artikulua.- Diru aguntzak helburu duten jardueretan **euskararen erabilpena dela-eta**, Euskararen Erabilpenerako Udal Ordenantzaren 24. Artikuluak ezarriari jarraiki jokatu beharko da, kontuan deialdi honetako helburu zehatza zein den:

“1.- Kultur, kirol eta aisi elkarteei subentzioak ematerakoan hizkuntzaren irizpidea ere kontutan hartuko da. Ondorioz, Gernika-Lumoko Udalarengandik diru laguntzaren bat jasotzen duten elkarte eta entitateek, pertsona fisikoak nahi entitate juridikoek, beren jardun subentzionatuetan argitaratzen dituzten idatzi, iragarki, ohar eta ezaqutzero eman beharko duten propaganda ere, bai ahozkoa bai idatzizkoa, euskaraz edo euskaraz eta gaztelaniaz egin beharko dutelarik. Era berean, ospakizun konkretuetan bozgoragailu bidez ematen dituzten mezuak ere euskaraz edo euskaraz eta gaztelaniaz eman beharko dituzte.

Euskaraz eta gaztelaniaz egiten diren adierazpenetan, eta batez ere ahozkoetan, euskarazkoari eman beharko zaio lehenetsuna, euskarazkoari adierazpenez jabetu litekeenak elebidunak baitira.

Subentzioak eskuratzeko baldintzetako bat izango da hori guztia, subentzio

- Actividad con prioridad alta y dirigida a uno de los grupos sociales implicados en el centro: 40%

Para concretar la ayuda asignada a cada actividad o proyecto, se aplicará el porcentaje/baremo correspondiente a su presupuesto.

18. artikulua.- En relación con el uso del euskera en las actividades subvencionadas, se deberá observar lo establecido en el artículo 24 de la Ordenanza Municipal de Uso del Euskera, teniendo en cuenta especialmente la finalidad de esta convocatoria:

"1.-para la concesión de subvenciones se tendrá en cuenta, asimismo, el criterio lingüístico. En consecuencia, las asociaciones y entidades que reciban alguna subvención del Ayuntamiento de Gernika-Lumo, sean entidades jurídicas o personas físicas, deberán publicar en euskera o en euskera y castellano los escritos, anuncios, avisos y propaganda, tanto oralmente como por escrito, que dirijan al público en el marco de las actividades subvencionadas. Del mismo modo, los mensajes emitidos mediante altavoces en las celebraciones concretas desarrolladas en el ámbito indicado, se harán en euskera o en euskera y castellano.

En las comunicaciones realizadas tanto en euskera como en castellano, y sobre todo en las verbales, deberá darse prioridad a la expresión en euskera, ya que las personas receptoras en euskera lo son también bilingües.

Todo ello será condición necesaria para optar a las subvenciones, siendo su

hartzaileak derrigorrez bete beharko duelarik subentzioa jaso ahal izateko.

2.- Udal instalazioak eta materialak erabili ahal izateko ere aurreko puntuan aipaturiko baldintzak bete beharko dira, horrez gain instalazio barnean jarritako publizitatea ere euskaraz azaldurik. Udalak, beraz, zernahi udal instalazio eta materiala erabiltzeko baimena ematerakoan, hizkuntz baldintza horren berri emango die interesatuei, eta fidantza itzuli baino lehen egin ohi diren egiaztapenatariko bat izango da hizkuntzari buruzkoa ere."

cumplimiento obligatorio para el beneficiario de la subvención.

2.- El uso de las instalaciones y materiales municipales se ajustará a las condiciones señaladas en el punto anterior, así como a la publicidad realizada en euskera en el interior de las instalaciones. El Ayuntamiento, por tanto, al autorizar la utilización de cualquier instalación y material municipal, informará a los interesados de esta condición lingüística, así como de las comprobaciones lingüísticas que se realicen con carácter previo a la devolución de la fianza. "

I. ERANSKINA

GERNIKA-LUMOKO IRAKASKUNTZA ZENTROEK 2024-2025 IKASTURTEAN NORMALKUNTZA PLANETAN ETA ESKOLAZ KANPOKO EGITASMOETAN EUSKARAREN SUSTAPENERAKO AINTZAT HARTUTAKO JARDUERETAKO DIRULAGUNTZA DEIALDIA

CONVOCATORIA DE SUBVENCIONES PARA ACTIVIDADES CONTEMPLADAS POR LOS CENTROS DE ENSEÑANZA EN PLANES DE NORMALIZACIÓN Y PROYECTOS EXTRAESCOLARES PARA LA PROMOCION DEL EUSKERA DURANTE EL CURSO 2024-2025

ESKAERA ORRIA (2024-2025)
IRAKASKUNTZA ZENTROA:..... IFK:..... Helbidea:..... E-maila:Tfno zk:.....
Ordezkaria (izen-abizenak):..... N.A. zk.:.....
Honen bitartez, Gernika-Lumoko Udalak egin duen diru-laguntza deialdiari eutsi nahi dio eskatzaileak, 2024-2025 ikasturtean Normalkuntza Planetarako eta Eskolaz Kanpoko ekintzetarako dirulaguntza deialdiari hain zuzen, eta deialdi horretan parte hartzeko eskaera egiten du, beharrezkoak diren agiriak aurkeztuz.

Data:.....

Sinadura

II. ERANSKINA

GERNIKA-LUMOKO IRAKASKUNTZA ZENTROEK 2024-2025 IKASTURTEAN NORMALKUNTZA PLANETAN ETA ESKOLAZ KANPOKO EGITASMOETAN EUSKARAREN SUSTAPENERAKO AINTZAT HARTUTAKO JARDUERETAKO DIRULAGUNTZA DEIALDIA

CONVOCATORIA DE SUBVENCIONES PARA ACTIVIDADES CONTEMPLADAS POR LOS CENTROS DE
ENSEÑANZA EN PLANES DE NORMALIZACIÓN Y PROYECTOS EXTRAESCOLARES PARA LA PROMOCION
DEL EUSKERA DURANTE EL CURSO 2024-2025

EGITASMO BAKOITZEKO FITXA

EKINTZA/EGITASMOA:
.....

Araudiaren bigarren klausulako sei ataletatik zeinetan kokatzen da:

- 1).- Familiari begirakoa ☐
- 2).- Irakurzaletasuna ☐
- 3).- Normalkuntza planak garatzeko ekintza orokorrak ☐
- 4).- “Euskara zine aretoetara” programa ☐
- 5).- Etorkinen seme-alabei eta euren senitartekoei doazkienak ☐
- 6).- Eskola barruko eta kanpoko komunikazioa euskaraz ☐

Eraginpeko agenteak zehaztea (irakasleak, ikasleak, gainerako langileak, gurasoak).

- | | | |
|---|---------------------------------------|--------------------------------------|
| - Agente guztiak ☐ | - Irakasleak ☐ | - Langileak ☐ |
| - Ikasleak ☐ | - Gurasoak ☐ | |

Erabiliko diren giza eta material baliabideak (labur)

- Arduraduna: _____
-
-
-

Egitasmoaren aurrekontua (gastuak eta diru-sarrerak)

Gastuak:

- _____
- _____
- _____
- _____

Gastuak Guztira _____

Diru sarrerak (autofinantzazioa):

- _____
- _____
- _____
- _____

Sarrerak guztira _____

Defizita: _____

Egitasmo edo ekintzaren kronograma (noiz hasi, noiz garatu eta noiz bukatu)

--

III. ERANSKINA

GERNIKA-LUMOKO IRAKASKUNTZA ZENTROEK 2024-2025 IKASTURTEAN NORMALKUNTZA PLANETAN ETA ESKOLAZ KANPOKO EGITASMOETAN EUSKARAREN SUSTAPENERAKO AINTZAT HARTUTAKO JARDUERETAKO DIRULAGUNTZA DEIALDIA

CONVOCATORIA DE SUBVENCIONES PARA ACTIVIDADES CONTEMPLADAS POR LOS CENTROS DE
ENSEÑANZA EN PLANES DE NORMALIZACIÓN Y PROYECTOS EXTRAESCOLARES PARA LA PROMOCION
DEL EUSKERA DURANTE EL CURSO 2024-2025

ZINPEKO AITORPENA Declaración jurada		
Aitortzailearen izen-abizenak / Nombre y apellidos del declarante: NAN / DNI.:		
Zein zentroren izenean ari den / Centro educativo al que representa:		
AITORTZEN DUT / DECLARO		
☒ Dirulaguntza eskatzen duen pertsonaren (fisikoa edo juridikoa) ordezkaria naiz, eta eskaera eta adierazpen hau egiteko ahalmen nahikoa dut. ☒ Dirulaguntzaren eskatzaileak [aukeratu aukera zuzena]: ☐ EZ du beste laguntzarik eskatu edo jaso hemen eskatutako dirulaguntzaren xede den jarduera –osorik edo partzialki– finantzatzeko. ☐ Hemen eskatutako dirulaguntzaren xede den jarduera finantzatzeko honako laguntza edo dirulaguntza hauek eskatu/jaso ditu:	☒ Que ostento la representación de la persona (física o jurídica) solicitante de la subvención, con poder bastante para formular la presente solicitud y declaración. ☒ Que la persona solicitante de la subvención [seleccionar la opción correcta]: ☐ NO ha solicitado ni percibido ninguna otra ayuda o subvención para financiar –total o parcialmente– la actividad para la que se concede la subvención aquí solicitada. ☐ Ha solicitado/percibido las siguientes ayudas o subvenciones para financiar la actividad para la que se concede la subvención aquí solicitada:	
ERAKUNDEA ORGANISMO	ESKATUTAKOA IMPORTE SOLICITADO	EMANDAKOA CONCEDIDO
☒ Konpromisoa hartzen duela Gernika-Lumoko Udalari helburu bererako	☒ Que se comprometo a comunicar al Ayuntamiento de Gernika-Lumo cualquier	

etorkizunean eska/jaso dezakeen beste edozein laguntza edo dirulaguntzaren berri emateko. ✓ Dirulaguntzaren eskatzailea ez dagoela onuradun izatea eragozten duten arrazoietakoa batean, Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikuluan aurreikusitakoaren arabera	otra ayuda o subvención que pudiera solicitar/percibir en el futuro, con esta misma finalidad. ✓ Que la persona solicitante de la subvención NO se halla incurso en ninguna de las causas que impiden obtener la condición de beneficiario, previstas en el artículo 13 de la Ley 38/2003, General de Subvenciones.
ERKATU DAITEZKEEN AGIRIEI BURUZKOA Dirulaguntza deialdiaren 19. Artikuluko b) eta c) ataletan aipatutako agiriak Gernika-Lumoko Udalak eskuratuko ditu elektronikoki, salbu eta eskatzaileak AURKA DAGOELA adierazten badu eskuraketa horretarako (“X” batez markatu): ☐ Aurka nago Gizarte Segurantzarekiko ditudan betebeharrekin egunean nagoelako ziurtagiria Udalak eskuratzeko. ☐ Aurka nago nire zerga betebeharrekin egunean nagoelako ziurtagiriak Udalak eskuratzeko.. Aurkako jarrera balitz, eskatzaileak berak aurkeztu beharko ditu aipatu ziurtagiriak eskaerarekin batera.	RELATIVO A LA DOCUMENTACION VERIFICABLE Los documentos referidos en los apartados b) y c) del artículo 19 de la convocatoria serán recabados electrónicamente por el Ayuntamiento de Gernika-Lumo, salvo que el solicitante manifieste su OPOSICION a que se recaben (marcar con una “X”): ☐ Me opongo a que el Ayuntamiento recabe el certificado de hallarme al corriente de mis obligaciones para con la Seguridad Social. ☐ Me opongo a que se recabe el certificado de hallarme al corriente de mis obligaciones fiscales. En caso de oposición, el interesado deberá aportar dichos certificados junto con la solicitud.

Lekua eta data / Lugar y fecha:

Aitortzailea / Declarante

IV. ERANSKINA

**GERNIKA-LUMOKO IRAKASKUNTZA ZENTROEK 2023-2024
IKASTURTEAN NORMALKUNTZA PLANETAN ETA ESKOLAZ KANPOKO
EGITASMOETAN EUSKARAREN SUSTAPENERAKO AINTZAT
HARTUTAKO JARDUERETAKO DIRU-LAGUNTZA DEIALDIA**

CONVOCATORIA DE SUBVENCIONES PARA ACTIVIDADES CONTEMPLADAS POR LOS CENTROS DE ENSEÑANZA EN PLANES DE NORMALIZACIÓN Y PROYECTOS EXTRAESCOLARES PARA LA PROMOCION DEL EUSKERA DURANTE EL CURSO 2023-2024

JUSTIFIKAZIOA (2023-2024)
IRAKASKUNTZA ZENTROA:.....IFK:.....
Ordezkaria (izen-abizenak):..... NAN zk.:.....

Oharra: orri honekin batera gastuen justifikanteak aurkeztu beharko dira (fakturak, ziurtagiriak,...) eta ekintza bakoitzaren garapenari buruzko deskribapen laburra.

Egitasmoa edo jarduera	Burutu den: BAI ala EZ. Ez bada burutu, arrazoia	Diru sarrerak	Gastuak	Defizita
GUZTIRA				